

W. von Humboldt: Haren eta harekiko “gure” argitalpenak

(W. von Humboldt: his publications and “our” publications about him)

Intxausti, Joseba
Euskal Fundazioa
Arturo Campion, 15
20009 Donostia

BIBLID [0212-7016 (1996), 41: 2; 623-642]

Euskal Herriko idazle eta historialariak biziki arduratu izan dira W. von Humboldt-en obrak, baina hark gure herriaz esandakoez batik bat (bidai egunkariak, euskarari buruzkoak). Lan bibliografiko hau Humboldt-i buruzako argitalpenez, edo hark idatzi eta Euskal Herrian nahiz atzerrian argitara emanik gurean ezagutzera eman izan direnez ari da (alegia, itzulpen espainol, frantses eta euskarazkoak, 1835-1995).

Giltz-Hitzak: Humboldt, W. Euskal Herria. Bibliografia.

Escritores e historiadores del País Vasco se interesaron vivamente por la obra de W. von Humboldt, aunque sobre todo por su obra referente al propio País (diarios de viaje, estudios sobre la lengua vasca). Esta nota bibliográfica da noticia de las publicaciones de / sobre Humboldt hechas en Euskal Herria, y de las exteriores a las que presumiblemente tuvieron acceso los estudiosos vascos (traducciones de textos al español, francés y euskera, 1835-1995).

Palabras clave: Humboldt, W. País Vasco. Bibliografía.

Les écrivains et historiens du Pays Basque se sont vivement intéressés à l'oeuvre de W. von Humboldt et particulièrement à son travail concernant le Pays Basque (journaux de voyage, études sur la langue basque). Cette note bibliographique donne les nouvelles des publications de / sur Humboldt éditées en Euskal Herria ainsi que celles de l'extérieur qui probablement ont été connues par les érudits basques (traductions de textes en espagnol, en français et en basque, 1835-1995).

Mots Clés: Humboldt, W. País Vasco. Bibliografía.

Wilhelm von Humboldt-en inguruan ematen ari garen jardunaldi hauen osagarri gisara, haren idazlanek Euskal Herrian izan duten presentzia bibliografikoaz zerbait esatea eskatu zait, batez ere hark Euskal Herriaz esan-idatzitakoetatik zer, nola eta nondik nora iritsi zaigun erakusteko asmoz.

Horretarako hiru atal nagusitan banatu ditut aurkezpen honen eranskinean bilduko ditudan albisteak:

1. XIX. mendeko euskal bibliografietako albisteak, lehenik.
2. Euskal Herrian eta inguruetan argitara diren itzulpenen zerrenda kronologikoa.
3. Humboldt-ez (eta beraren euskal lanez, berezikiago) ditugun ikaslanak.

Lehen atalean, Allende-Salazar, Vinson eta Sorarrain hartu ditugu aintzakotzak, beste inoren xehetasunetan sartu gabe (Soraluze edo Aizkibel-enetan, adibidez), hiru haiek aski adierazgarriak direlakoan. Itzulpenen zerrenda kronologikoak erabat osoa edo izateko gogoia izan du, Humboldt-en oihartzun bibliografikoa denboraren harian nola iritsi zaigun erakutsi nahiez.

Azkenik, hirugarren atalean, Euskal Herrian eta Frantzia-Espainietan Humboldt-en Euskal Herrikoaz zerbait esan zezaketenak edo bildu ditugu. Azterlan hauek guretzat zeresanik eta gurekin zerikusirik duten neurrian jaso ditugu zerrendan; hala ere, zerbait esku-zabalki jokatu dugu, izan ere ezin ahantziak iruditu zaizkigu euskara edo Euskal Herria gaitzat izan gabe ere, argitara berriak diren itzulpen eta ikaslan batzuk ere gurera biltzea (Agud 1990, Valverde 1991 edo Meschonnic 1995, adibidez).

Tentaldiren bat izan dut gure ikastetxeetako Linguistika-eskiliburuetan Humboldt-ek duen lekuaz zerbait esateko, baina begiratzeko hasi orduko jabetu naiz gaurkoz ur handiegietan sartzea zela hori, eta bidezidor horretatik ikusitakoaz ez dut deus esango. Arrasto honetan zertxobait nahi duenari Arens-en obra begiratzeko aholkatuko nioke, Humboldt-ek Linguistikaren munduan (izan) duen tamaina ezagutzeko (ARENS, H (1975): *La Lingüística. Sus textos y su evolución desde la Antigüedad hasta nuestros días*. Madrid: Gredos. 2 lib.: I, 229-235, 241-251, 272-293).

* * *

Hogeita hamabi urterekin hona etorri zenetik, Wilhelm von Humboldt (1767-1835) eta Euskal Herria ez dira izan sekula elkarrentzat ezezagunak. Bere hizkuntz idazlan sonatu eta handienak idatzi aurretik ikustatu zuen hark gure herria, eta aldi berean baita euskaldun batzuek hura ezagutu ere, XVIII. mendea amaitzeaz zegoenean (1799).

Euskal Herriak Humboldt-en baitan utzi zuen ukitua nolako izan zen jakiteko, bidaiariak berak idatzitakoa hona ekartzea baizik ez dago, hemengo bere lehen egonaldia gogoratuz zera baitio: "Bizkaiko Golkoaren itsasertzean igarotako udaberri hura beti gomutatuko dut nire bizitzako ederrenetakoa bezala" (Varii 1925: 127).

Jakina denez, Wilhem birritan iritsi zen Euskal Herrira: lehenengoan, Parisetik Madrilera ziohala, bidebatezko ibilaldia bete zuen hemen (zortzi-bederatzi egun: 1799ko urriaren 10ean Baionan zen, eta 18an Bureba-aldean), baina bigarrean, espreski etorri zen bertora (1801eko apirilaren 28tik ekainaren 2ra). Humboldt ez zen pasa hemendik turista gisa, ezta lehenengo aldian ere, aldeaz aurretik ongi prestatuta eta begi zoliz baizik, Goethe edo Schiller-ekin izandako eskutizketak erakusten duenez (Garate 1946: 465-466; Varii 1925: 304-305).

Humboldt-en euskal ibilaldietan herriz herri doa bidai egunkaria, horietako bakoitzaren nortasun eta ezaugarriak deskribatuz: Donibane-Lohizune, Donostia, Zarautz, Getaria, Zumaia eta Markina, Gasteiz, Durango, Bilbo, Gernika, Lekeitio, Elgoibar, Azpeitia, Oiartzun edo Baiona, 1801eko bidaiako batzuk bederen aipatzearen (Varii 1925: 19-20).

Baina herriak bezain interesgarriak ziren Humboldt-entzat herritarrek. Gutunez eta pertsonalki bere belauneko zenbait euskaldunekin izandako adiskidetasuna jarri behar da, ondoren gure herrian gorde zitzaion oroitzapen-leialtasunaren funtsean. Hona etorri aurretik ere saiatu zen Wilhelm bertoko zenbait herritarrekin harremanak lotzen, eta ezagun berriei esker, eskuratu ahal izan zituen Euskal Herriaz eta hizkuntzaz liburu eta ikas-tresnak.

Euskal jakitun eta eskolatuen izenak errenkan datoz horien artean: Munibe gaztea, Astarloa, Prestamero, Mogel, Murga, Haranbillet (Varii 1925: 37-38, 126-127, 178, 188, 197, 282-283; Garate 1946: 30). Beren arteko gutunetan ere ageri da harreman horien lekukorik (Garate 1933: 43, 75; 1942: 80-90). Ikastun edo dirudunekin bezala herritar xume edo base-rritarrekin ere izan zituen bere hizketaldiak, euskaraz ere (Varii 1925: 53, 151, 153, 187, 223-226).

Guzti hauei esker Euskal Herriaz eskolatuko zuen hainbat idazlan eta liburu eskuratu ahal izan zuen Humboldt-ek, Parisen eta hemen: Axular, Oihenart, Henao, Larramendi, etab. (Varii 1925: 33, 126, 155; Garate 1946: 34, 35, 46). Bidaien ondoren ere –beti, idatzi nahi zituen lanei begira– ahalegindu zen batez ere hizkuntzari buruz albiste berriak jasotzen (Garate 1942: 85).

Halako interesa erakutsi zuenari ez zioten entzungor egin euskal adiskedeek ere. Murga-ri zenbait atal klasiko euskarara zezala alferrik eskatu bazion ere (Garate 1942: 86), gerora Joan Antonio Mogelek egindako itzulpen-lanaren aitatasuna espreski aitortu zitzaon Wilhem-i (Astarloa 1802: sarreran).

Autorea artean bizirik zela burutu zen Humboldt-en gatelaniazko lehenengo euskal itzulpena: 1835eko martxoan, apirilaren zortzian Humboldt hil baino egun gutxi lehenago, alegia. Lan horrek erakusten duen Humboldt-ekiko estimuak badirudi nahikoa bizirik iraun zuela XIX. mendeko lehen erdialdian, Bonaparteren itzalak bigarrean itzali ez baina zerbait ilundu zuen arte. Geroago, zer esanik ez, Bonaparte-renak baino askoz gehiago zabaldu izan dira gure artean Humboldt idazlanak.

Humboldt-en idazlanen artean 33 azterlan zerrendatu dira hizkuntzalaritzari eskainiak; lan erraldoi hau, garaiko hizkuntzalari handien begiradapean egin zen, bere anaia Alexander-ek dioskunez, F. Bopp bezalakorik inguruan zuela (Humboldt 1991: 25-27; 1990: 16). Behin baino gehiagotan nabarmendu izan da Humboldt-engan –haren hizkuntzalari-lanean, alegia– euskararen ezagumenduak izan zituen pisu eta eragina.

Euskal Herriaren zinezko maitale izan zen Wilhelm, eta euskara maitatu zuen bereziki, baina, *kawi* hizkuntzari buruz jardutean bezalatsu (1827-1835), euskara ikasi eta aztertzean ere hizkuntzen azken barne-moldeak bilatzeko tresna paregabekat jo zuen gure hizkuntza (1811/17, 1820-1821). Eta komentzimendu honen predikaria izan zen Europa osoko jakitunen artean.

Gurera ere iritsi ziren haren euskal argitalpenetako laudoriozko iritziak eta haren lanaren sona, baina ez atzerapenik gabe. Bestalde, espero zitekeen bezala, euskaldunok Humboldt-ekiko izan dugun jakin-mina gure herriaz eta hizkuntzaz idatzi zituenetara bildu izan da, geurekeria estuegiz seguraski, zor diogun guztiagatik ere merezi baitu Humboldt-ek trataera bihotz-zabalagorik.

Tamalez, hor ere –samurrago begiratu ditugun euskal gai humboldtiar horietan ere– hesi-langa mugagarririk ez da falta izan. Humboldt-ek alemanez idatzi zituen bere egunkariak, eta orobat euskarari buruz esan nahi izan zituenak, eta lanok frantsesera eta geroxeago gaztelaniara itzulita izan ez ginen bilakatu batere haren irakurle saiatu.

Esan beharra dago, bestalde, nik dakidala, euskaraz ez dela ia deus idatzi Humboldt-i buruz: olerki bat itzuli zion Otaegik (Otaegi, 1880: "Odeiak"), eta prosaz, gerraurrean Garatek zertxobait, eta ondoan Azurmendik beste hainbeste. Tito Livio-ren mintzaldiak edo Zizeron-en katilinariak euskarara itzularazi zituenak merezi zuen bestelakorik, hala ere!

Hamarkada batzuk pasa ahala eta bibliografia handien garaiak iristean (XIX.eko azken hiru hamarkadetan), han-hemen hasi ziren haiek Humboldt-en obraren oroitzapena indarberritzen. Aldi beretsuan –oso banaka izan arren– baita erbesteko argitalpenak hona iristen ere.

Eskura izan ditugun, eta gaur egun ere gure artean ditugun Humboldt-en lan gehienen (guztien?) aipamen zehatzak eranskinerako utzita, ikus ditzagun, handi-mandian, Humboldt-erenetik eta hari buruz gurean zabaldu izan direnak.

1. XIX. MENDEKO EUSKAL BIBLIOGRAFIETAKO ALBISTEAK

XIX. mendean zehar euskaltzale eta euskalarien artean ez da falta Humboldt-en aipurik, eta zer esanik ez, erbesteko euskalarien artean. Euskal Herrian bertoko ikastunek ere bazuten, noski, gure herria ezagutu eta euskara ikastera etorritako jakitun europarraren oroimenik; baina horrek ez du esan nahi, noski, Humboldt-en idazlanak Euskal Herrian zuzenki alemanez ezagunak izan zirenik, eskuarki bederen. Besteak beste, izkribu haien jatorrizko hizkuntza zinezko eragozpena izan baitzen hemengo irakurlegaiantzat.

Oztopo hori gainditzeko –esan dugu– laster heldu zitzaion itzulpen-bideari (1835), eta J. M. Arginzoniz-ek eman zigun Madriletik 1921eko *Prüfung* itzuli-moldatua: *Examen de las investigaciones que por medio del idioma vascongado se hicieron sobre los primitivos moradores de la España, escrita en Alemán por Guillermo de Humboldt[t], traducida libremente por J. M. Arguinoniz*. Moldiztegira sekula iritsi ez zen eskuizkribu honen aldakin bat Urkixok gorde zigun, txukun koadernatuta, (Vinson 1984: 270, 189e z.), eta itzulpen berriren baterako bide-lagun izateko balio izan du inoiz (Garate 1933: 5).

Eta eskuizkributik gatozen inprimatueta. Mende haren azken hamarkadetan argitara emandako euskal bibliografia orokorrak, bakoitzak bere gisara, Humboldt-en eskuetatik euskal gaiez ateratako idazlanen berri jasotzen saiatu ziren. Bibliografia horietan nabaria denez, ez zuten ezagutu, ordea, haren lana bertatik bertara, zenbait tartekariren bidez baizik (Rivary, Vinson, etab). Eta ezagutza hori ez zen heldu, inondik ere, ikastun haren euskal idazlan guztietara, haietako hainbat argitara gabe egon izan baita luzaroan. Izan ere, nahikoa izan zuten Vinson-ek, eta batez ere Allende-Salazar eta Sorarrain-ek, Humboldt-en apurrik larrienak behintzat biltzearekin.

Beste bieie aurrea hartuz, Allende-Salazar-ek 1887an eman zuen argitara bere *Biblioteca del Bascófilo* deitua, Madrilén. Euskal Hegoaldeaz bakarrik ari zen liburua, baina, hori bai, zernahi gai bildu nahi zuen. Gaien zabaltasun guzti horrekin ere 2.027 sarrera bakarrik eman zituen argitalpen honek, eta hizkuntza eta euskal literaturarekikoak lau sail laburretan bildu zituen (Secciones XX-XXIII): orotara, 252 sarrera.

Bederatzi sarrera-aipu ditu liburu-katalogo honek Humboldt-en obraren berri ematean, eta, euskal bibliografia hauetan ohi denez, beti euskarari nahiz Euskal Herriari eskainiak, ez

besterik. Nahiz eta hastapenetik Allende-Salazar-ena Hegoaldera mugatua izan, gure lehenengo bibliografo handiak edizio aleman orijinalak gogorarazten dizkigu, zeharbidez datozkion albisteez baliatuz. Aipu bibliografikoak ez dira, ordea, osoak beti (115, 333, 698 eta 1836, 1907. aipuei argitalpen-urtea eta hiria falta zaizkie), eta ikusten da, gehiago ari dela bibliografoa aditzez, ezagutza zuzenez baino.

Allende-Salazar-ek, itxura guztiz, ez zuen aurkitu ahal izan Humboldt-en libururik Euskal Herrian; baina Madrilako Ateneoko Liburutegian topatu zuen 1821eko *Prüfung*-en ale bat (1640. aipua); uste dudanez, Valverde-k bere tesia egitean erabilitako ale bakar bera (Valverde 1991, sarreran). Marrast-en itzulpen frantsesa ez da falta Allenderen bilduman (736. aip.); baina ez ditu jasotzen Ortega y Frías-ek zortzi urte lehenago kaleratutako itzulpena (*Prüfung/Primeros habitantes de España*, 1879) eta Otaegik euskaraz emandako olerkiaren albistea (1880).

Artean (1887), ba, Euskal Herritik urrun ageri zaigu Humboldt. Honen heriotzatik (1835) mende-erdi bat ez zen aski izan euskalari prusiarraren albiste osoagorik gure herrian hedatu nahiz biltzeko. Allendek berea eman ondoren, beste hamalau-hogei urte behar izan ziren Vinson-ek zehaztasun hoberik eskaini zezan (1891-98).

Julien Vinson (Parise, 1843-Libourne, 1926) da XIX. mendeko gure bibliografo handia, eta beroni zor diogu *Essai d'une bibliographie de la langue basque*, Parisen bi liburukitan argitara emana (1891, eta eranskina: 1898; 1983an, Bizkaiko Aurrezki Kutxak bere hartan eta bi liburukitan berrargitaratua, eta Gipuzkoako Aldundiak 1984an liburu bakar batean eta Urkixoren oharrekin emana).

Allende-Salazar-ena ez bezala, Vinson-ena oso-osorik hizkuntzari eta euskal literaturari begira bildutako bibliografia da, bestelakorik gabe. Obraren gorputz nagusian, Vinson-ek 693 sarrera zituen (sarritan bizpahiru eta gehiago azpi-sarrerekin emanak), eta dena urtez urte jaso. Lehen argitalpenean bertan, "Additions et corrections" batzuk erantsi zizkion lanari, eta bigarren emanaldian "Complément et Supplément" partearekin osatu zuen lana (1898), 1891ekoa ongi albiste-hornituta utziz. Azkenik, 694-1309. sarrera berriak gehitu zituen, eta egunkari-aldizkarietako berriak ere jaso. Hau dena, esan bezala, dena euskarari eskainia.

Essai hura kaleratu zuenean, Vinson ez zen ezezaguna, aurreko hamarkadetatik ari baitzen Pariseko *Revue de Linguistique* deituan bere azterlanak ematen. Xehetasun zehatzenak zaintzen zituen langile horietakoa izan zen Vinson, eta bere buruarekin bezala inoren lanarekin ere, kritikari kupidagabea. Dena den, Humboldt-enean –beste askorenetan bezala– berriak Parisen ere jaso eta albistek euskal mundu bibliografikora zabaltzen gehiago ibili zen Vinson, Euskal Herrian bertan jakin zitekeena biltzen bakarrik baino. Beraz, Humboldt-en obraren berri ematean, Vinson-en ekarriak, aurreko hemengo jakitate zaharrak isplartzeko baino gehiago, batez ere ondoko euskal belaunei laguntzeko balio izan zuen.

Hala ere, Allende-ren zehaztasunik gabeko aipu ugariagoak Vinson-en lehen lanean (1891) lau aipamen nagusitara mugatu ziren: bi orijinaletara, eta berorien itzulpen banatara. Hona, ba, zeren berri eman zuen *Essai* delakoak:

- 1) 1817an *Mithridates*-en emandako lana: *Berichtigungen/Correcciones y adiciones*.
- 2) 1821ean argitaratutakoa: *Prüfung/Primitivos habitantes*.
- 3) Azken honen Marrast-en itzulpen frantsesa (Paris, 1866): *Recherches sur les habitants primitifs de l'Espagne*.
- 4) Obra orijinal beraren Ortega-ren itzulpen espainola (1879): *Los primitivos habitantes de España*.

Hori horrela, Vinson-en 1898ko eranskinak bi berritasun ekarri zituen: alde batetik, Humboldt-en beste lan orijinal baten albistea ematen zaigu, nahiz eta berau euskarari buruzkoa ez izan, baina bai autorearen obran guztiz funtsezkoa: *Ueber die Verschiedenheit des menschlichen Sprachbaues/Sobre la diversidad de la estructura del lenguaje humano* (hilondoan argitaratua: 1836). Hizkuntzalariei ongi ulertu badiet, hau da Hizkuntzalaritza Orokorrerako Humboldt-ek utzi zuen obrarik estimagarriena, baina, esan bezala, ez da espreski euskarari buruz ari. Hala ere, Vinson-ek –eta hain zuzen berak– bere saioan obra honen Berlin-go edizioa (1876) ezagutzera ematean, komeni zitzaigun “maisua” berreskuratu nahi izan zuen guretzat (premia bagenuen, bibliografo honek esan ohi zuenez eta).

Ueber die Verschiedenheit honek ez du gero J. Bilbao-renean lekurik izan –Euskal Herriaz ari ez delako, noski–; baina Espainian Valverde-k (1955), eta oraintsu A. Agud-ek (1990) eskaini digute beronen itzulpen bana, atal hautatueta hark, eta honek osorik: *Sobre la diversidad de la estructura del lenguaje humano* (ikus eranskinean).

Humboldt-en euskararekiko teoriek XIX.eko aldizkarietan izandako oihartzunen berri ere eman zuen Vinson-ek 1891ean: lau aiputxo dira bakarrik (hiru, aldizkari frantsesetakoak, eta *Gazette de Berlin*-ekoa: 1821, 1835, 1875), eta osagarri gisa, Michelet-ek bere Frantziako Historian Humboldt-i jasotako euskal testuen berriematea (s.d.).

Aurrera baino lehen, gure hirugarren bibliografo ezaguna ere ekarri beharko da hona: Sorarrain-ek ez zuen autore bezala zorte handirik izan, Vinson-enaren urte berean agertu baitzen *Catálogo general cronológico de obras eúskaras* liburua (Barcelona. 1891). Paristarra lehiakide bortitza zen, bien barruti honetan, jakitez eta baliabidez bortitza. Vinson-ek emanak zituen lau aipu nagusiak bakarrik jaso zituen Sorarrain-ek.

XIX.ean Humboldt-i buruz bibliografoen bidez jakindakoaz balantzea egitean zera esan liteke: Bibliografo haien albisteetatik at eta euskal jakitunengandik urrun geratu zen Humboldt-en hizkuntzalaritza orokorra (orduan eta geroztik ere, hein handi batean); baina, eskasagoa dena, baita Humboldt-en euskal lan “berriak” ere.

Galera horien adibide batzuk garaiko zenbait gertakari editorialetan ikus litezke. Humboldt-en obra osoari gagozkiola, a) Alemanian eta alemanez banaka argitara emandakoak ez ziren iritsi. b) Baina, larriagoa zena, ezta Carl Brandes-ek 1841-1852etan zazpi liburukitan kaleratutako *Gesammelte Werke* zeritzan obra “guztien” ediziokoak ere (Berlin: G. Reimer). Eta Humboldt-en euskal obrari gagozkiola, a) Ezta gutaz ziharduen gainerako euskal edizio aleman solterik ere (egon, halakorik egon baldin bazen behintzat), eta azkenik, b) haren eskuizkribuetatik “idazlan guztietan” jasotako euskal lan berriak ere ez (1843an kaleratutako «Reiseskizzen aus Biscaya», adibidez, 1889ra arte ez zen gurera iritsi). Bestalde, zenbait itzulpen ere ez zuten aintzakotzat hartu bibliografook (Labadie, Unamuno).

Baina, hala ere, egindako ekarpen- eta hedapen-lan mugatua ez zen antzua izan, ez euskalaritzan eta ez gure hizkuntzaren inguruko jarreretan ere. XIX.eko euskalaritzan, eta gerokoan, Humboldt-en lekua goraki aitortu da gure artean; prusiarraren eragina, etxe barruko euskal jakitunengan eta atzerriatik etorriko zitzaizkigunengan, ezagutua izan da (ik., adibidez, Tovar 1980, Michelena 1972). Bestalde, Kanpion-ek zera gogoratu zuen, eskolatuen euskararekiko jarrera-aldakuntzaz ziharduela (*Gramática*, 1984: 15):

Fué preciso que un extranjero ilustre [W. von Humboldt] dijera «que la España pertenece al pequeño número de regiones que permiten determinar con ayuda de una lengua aún viva qué pueblos la han habitado en su origen» [Humboldt 1866-*ik jasotako aipua*] para que después de muchos años, y cuando sabios de la mayor parte de las naciones se ocupaban del euskara, abandonase España un tantico de su olímpico desdén tocante al idioma que tal vez fué el de sus aborígenes.

Kanpionen testu honetan soma daitekeenez, Humboldt-en ekarriak hizkuntzalaritza ezezik hizkuntzaren bizitza akademiko-kulturala ere argi berritara ekartzeko balio izan zuen, neurriren batean bederen. Unamuno-k *Euskal-Erria* aldizkarian emandako itzulpena norabide berean zihoan inondik ere (1889), euskalaritzara haize berriak sarrarazteko ahaleginen bide-tik, alegia.

Dena den, XX. mendeko eginkizuna izan da, ez XIX.arena, Humboldt-en euskal obra argitaratu osoa gure artera ekartzea, ez beti modurik egokienean, baina bai eskuartearen genuenaren balioaz jabetuago ginea eta lan-egitarau helduago baten barnean.

XX. MENDEKO EUSKAL HUMBOLDTZALEEN LANA

Vinson-en obra nagusiaren ondoren ia laurogei urte bete dira (1891-1970) Bilbao-ren *Eusko Bibliographia* eskuetara zitzaigun arte (Donostia: Auñamendi Argitaldaria). Gaur egun -1970az ondoko urteetako berri bibliografikoak ere bilduz datorrenez- hori da gure berriema-lerik leialena.

Espero zitekeen bezala, kultura alemanaz arduratuak eta horretarako prestatuak izan dira prusiarraren euskal testuen ekarle. Itzultzaile-ikastun hauek batzuetan euskaldunak ziren (Garat, Trueba, Unamuno, Etxegarai, Azkue, etab.), baina inoiz edo bestetan baita atzerritar-rrak ere, Humboldt-en "euskal" lanetara bide batez edo iritsitakoak sarritan (Frossard, Darrigaix, Hübner, Farinelli, Cejador, Quelle, Heiner mann, etab.). Idazlan honen eranskinean ikus ditzake irakurleak komeni diren xeetasunak.

XX. mendeko hamarkadetan Humboldt-en obrari Euskal Herriak jarri dion arretaz jabe-tzeko, Garate-ren ohar bibliografikoekin batera (1933) begira-puntu egokia da *Eusko Bibliographia*, eta, gure hemengora etorritz, interes berezia du, gainera, izan ere mende honetako lehen erdialdiari zor baitizkiogu ikerlan eta itzulpen humboldtiar aberatsenak.

Ez da ahanzi behar, kasi mendearekin hasita (1903-1936), Prusiako Zientzien Erret Akademiari eta A. Leitzmann/B. Gebhardt/W. Richter paratzaileei esker eskura zeudela (biga-rrenez: eguneratuta berriz ere) Humboldt-en idazlan Guztiak, 17 liburukitan. Honelako argita-raldi handiek euskal humboldtologia eguneratzen behin eta berriz lagundu izan dute. Horrela, Euskal Herriarekiko idazlan aurkitu berriak ere hor zeuden, 1920az geroztik.

Izan ere, Leitzmann-ek euskal *corpus* humboldtar zabalago baten aurrean jarri gintuen, eta ondoko pausoak berriaz etorri ziren gure artean: testu berrien itzulpenak lehenengo, eta azterlanak gero, guztiari ere Euskal Herrian bere argitalpen-bidea samurtuz. Aro berrian sartu zen euskal humboldtologia.

Unamuno-rena aipatu da, eta azpimarratzekoa da, gainera, garai berean, Donibane-Lohizunen frantsesez -Marrast-engandik hartuta- egindako argitalpen xumea, herritar arrun-tenganaino iristeko gisara kaleratua (1897; urrunago geratu zitzaizkigun Darregaix (1876) edo Bossert (1908).

Humboldt-en ikerkuntzan, Arturo Farinelli gertatu da izen ardatza. Lehen lanen ondoren (1889; 1912, *RIEVEN*), funts trinkoagoarekin heldu zion Humboldt-en alde jakingarri bati: *Guillaume et l'Espagne* (Torino, 1924). Euskal Herria, noski, hor barnean zen, eta, bestek beste, bi kapitulu eman zituen Farinelli-k gureaz: "Esquisse sur le Pays Basque" eta "Les études linguistiques et ethnographiques sur le Basque". 1922an Farinelli Euskal Herrira deitu zuten Eusko Ikaskuntzako humboldtzaleek, eta hari zor diogu orduan idatzitako hitzaldi/hitzaurre hunkigarri bat: "Guillermo de Humboldt y el País Vasco" (Varii 1925: 1-16).

Beste kasu askotan bezala, Humboldt-erenean ere Julio Urkixo izan zen ate berriak ireki zituen, bere aldizkariaren orrialdeetatik (Farinelli-ri RIEVera deituz, 1912). Ondoko bi hamarkada t'erditan, haren aldizkarian babes eta argitara-bide erosoak aurkitu zituzten Aranzadik (1922tik aurrera), eta geroago Garatek (1931, eta ondokoak). Urkixo-ren egitekoa batez ere ikastunak Humboldt-ez ohartaraztea eta ondoko lanetan erraztasunak ematea izan zen, berak personalki eremu honetan azterlanak egitea baino areago (beranduko haren oharrak, bibliografikoak izan ziren: 1933).

Urkixo-ren itzalpean, edo inguruan, Eusko Ikaskuntzatik eta RIEVen, bi langile fin izan genituen 1922-1936.enetan. Lehenengoa Telesforo Aranzadi izan zen, bere lehengusu Unamunoren garai bateko itzulpenei segida eman ziena. Aranzadi-ren itzulpenak bizpahiru urtetan kaleratu ziren, eta guztiaren fruitua 1925ean argitara zen liburu gisara, On Miguel-en 1889ko hura ere gehituz (Varii 1925). Bazirudien, ba, Humboldt-en itzulpen-lanak buruturik zirela.

Hala ere, gazte etorri berri batek helduko zion zereginari, hurrengo hamarkadan; 1931tik hona berau gertatu da euskal letretan humboldtzale kasik ofiziala. Justo Garatez ari naiz, noski. RIEVen ekin zion azterketari, ohar labur batekin eta idazlan laburren berreskuratzearekin.

Garate-ri lan laburrik franko zor diogu, baina mardulagorik ez zaio falta: Aranzadi-ren 1925eko argitalpenarekin batera, 1933ko Garate-ren *G. de Humboldt. Estudio de sus trabajos sobre Vasconia* izan da geroztik euskal humboldtzaleen oinarrizko liburua. Gerraurreko azken orduan, *La época de Pablo Astarloa y Juan Antonio Moguel* eman zigun, gainera (1936), Humboldt-en adiskide haiek gogoratzuz. Bestalde, gerraurreko urte haietan Humboldt-en testu laburren berreskuratzea Garateren bilaketatik etorri zaigu ia osorik (ik. zerrenda kronologikoan).

Gerraondoko erbestetik ere lanean segi zuen Garatek aldizkari eta liburuetan prusiarraren testuak bildu eta zabalduz. Urte haietako bi liburu ekar daitezke hona: *El viaje español de Guillermo de Humboldt (1799-1800)* eta *Cuatro ensayos sobre España y América*, Buenos Aires-en hurrenez hurren 1946an eta 1951n argitara emanak. Lan zabalago hauen ondoan, eman zuen Garatek laburragorik ere urte haietan (1942, 1948). Azpimarratzekoa da, gainera, Humboldt-en itzulpen berriei Garatek egindako kritika (*Eusker*a, 1978, 1979), gure humboldtologiak ere bere gerraxoak izan dituela jakiteko.

Izan ere, 1959an *Prüfung*-en itzulpen berria egin baitzuen F. Etxebarriak, Minotauro argitaletxe madrildarraren gidariak (*Los primitivos pobladores de España y la Lengua Vasca*). Oraingoan, gainera, sona handiko aitapontekoa izan zuen Humboldt-ek edizioaren hitzaurrean: Arnald Steiger romanista suitzarra. Azken hamarkadetan (Aranzadi-ren lehenagokoa ahantzita), Etxebarriaren hau izan da eskurago izan dugun argitalpena, beste Humboldt-en liburuetan ere beranduagoko edizioak izan ditugun bezalaxe (*Los Vascos*, 1975 eta 1979).

1958an Steiger-ek idatzitako lerroek gaur balio are handiagoa dute, 1970. hamarkadatik hona Penintsulako erromaurreko herrien bila hainbat ahalegin egin den honetan. *Prüfung*-en autoreaz hark idatziak dira hauek:

Tras sus penetrantes análisis se percibe al autor, afanoso de exactitud y medida. Es cierto que, a pesar de la clara exposición de los principios metódicos, queda aún torpe la técnica (...). Pero consideremos más bien cómo se hace evidente su refinado espíritu. Aunque muchas veces nos da la impresión de lejanía, nos ha trazado de los impulsos filológicos de hace 130 años una delicada y exacta silueta. (...). *Lo que más importa ahora (...) es conectar los resultados aquí expuestos con la órbita de los estudios modernos y repensar, en forma de nutrido comentario, el asunto mismo.* (Steiger 1959: 7, 8. Nire azpm.).

Aholkuak, *mutatis mutandis*, Humboldt-en obra osorako balio lezake, baina lehenik baldintza jakin batekin: garaia da Humboldt-en obra osoa (argitara emana eta gabea) batera bildu eta modu kritiko batean jendeari era bermatu eta erosoan eskueran jartzeko (itzulpen-arazoa ere gogoan dela). Pauso hori emateko, ordea, gaurko abiapuntuaz zerbait esan nahi-ko nuke beintzat, seguraski testu kritikoa molda dezaketenek ondotxo dakitena esateko izango bada ere.

GAURKO ABIAPUNTUTIK EZAGUMENDU HOBE BATERAKO

W. von Humboldt-ek ez du gaurkotasunik galdu, nonbait, Alemania bere sorterrian. Horren lekuko dira haren obra guztien argitalpenak: 1967-1968etan gerraurreko Leitzmann-ena berrargitara zen: *Gesammelte Schriften*. Berlin: W. de Gruyter; baina baita guztiaren edizio berriua egin ere: FLITNER, A.; GIEL, K. ikertzaileen eskuetik etorri zitzaigun: (1960-1981): *Werke in fünf Bänden*. Darmstadt: Wissenschaftliche Buchgesellschaft.

Berrikitan, ordea, lanak bizkortu egin dira, 1995eko urte honetan iritsi zaizkigun albiste zuzpergarrien arabera: Perlick andrearen asmoen berri jakin dugu Jardunaldi hauetan, eta aldi berean baita Graz-eko Unibertsitatea prestatzen ari denaren albiste ere. Eta batez ere beste zerbaitek poztu gaitu: Krakovian Humboldt-en eskuizkribu ugari dago argitara gabe, baita Euskal Herriaz eta euskaraz diharduenik ere. Berriz ere Leitzmann-en edizioarekin gertatu zenera gatoz: humboldtzaleentzat iturri berriak izango dira eskueran berehala.

Humboldt-en euskal obra gure artera ekartzen egindako saioa estimagarria izan da, gerraurrean batez ere. Aipatu ditugu horretan ibili direnen izen nagusienak. Baina Garate da guztien aurretik jarri behar duguna. Zoritxarrez, honen ahalegin hori dena oso sakabanatuta eta atalka egin da, eta Garate-ren lan-molde bereziak ere badu hor alde nekagarririk: sarritan tantaka emanik eta han-hemen erdi galduta utzi dizkigu bere itzulpen, albiste eta kritikak.

Garate-ren lan osoa batera hartzean are nabariagoak dira oraindik ahalegin horren mugak: Humboldt-i buruz zerbait esan nahi dugun bakoitzean, sakabanaketa horri gaina hartzeko, lehenengo bilaketa bibliografiko eta alderaketa testual gaitza egin behar du edozeinek ere. Ehundaka eta milaka xehetasun baliagarri dago Garateren ondarean, baina lehenbaitlehen norbaitek jorratu eta ordenatu beharko du hori dena, irakurle arrunta, eta berezitua ere, lehen pausoetatik bertatik sasi-traba ez dadin.

Euskal Herrian egindako edizio humboldtarrak liburutegi publiko eta pribatu anitzetan topa litezke, eta asko eta asko oraindik salgai ere badago. Donostiako KM Kulturuneko katalogoan, adibidez, 34 sarrera aurkitu ditut, gehienak Urkixo Liburutegikoak, noski. Gerraurreko gehientsuena ere badago, eta azken ordurorik ere bai. Humboldt-en lehen edizio alemanetako bi behintzat baditugu hor: 1817ko *Berichtigungen* ("Zuzenketak") eta 1821ko *Prüfung* ("Azterketa"). Bestalde, azken honen XIX. mendeko lehenengo bi itzulpen frantses-espainolak ere bertan ditugu: Marrast-ena (1866) eta Ortega-rena (1879). Laurak ere Urkixo-ren *ex-libris*-arekin ageri dira.

Baina liburutegiak liburutegi, Humboldt-en euskal obra bera da baldintza berrietan jarri behar dena, gaurkotuta. Bada ordua Humboldt-en euskal obra osoaren edizio kritiko eguneratua prestatzeko, lehendik argitaratuak eta aurkitu berriak izan litezkeen langai guztiak ere barne direla. Argitalpen horrek eramango litzuke zinez ikasketa eta hedapen humboldtarrak aro berri batera.

Bukatzeko, arestian iradokitako zerbait errepikatuko dut: hemendik aurrera, Humboldt-en euskal obra bera ulertzeko hori dena haren obra osoaren barnean irakurri beharko da,

gainera. Zorionez, badirudi gure inguruetan ere Humboldt hizkuntzalari orokorra eta politika-teorikaria indar berriz datorrela (Valverde 1955, Abellán 1988, Agud 1990, Sánchez Pascual 1991; Frantziakoetatik Quillien eta Meschonnig gogoratzen dira eranskinean). Oraingoz, eta hoberik ezean, edizio egin berrion kariatara eskainitako azterketak sintesi praktikoak gerta litezke atariko bezala.

Bistan da –eta Kongresu honetan ikusteko aukerarik izan dugu– Humboldt-en ikertzaile alemanek eta beroriekin batera lanean diharduten hemengoek zer zor diguten: 1) Lehenengo, azken aurkikundeen ondotik Humboldt-en *euskal idazlanen bilduma osoa*. Berori prestatzeko egokiera ezin-hobea dute orain: dena jatorrizko hizkuntzan osorik paratzeko, alegia, baina baita hori guztia euskaraz emateko ere (itzulita eta oharreztatua). Humboldt-ek hainbeste estimatu zuen eta, saminez, hiltzear ikusi uste izan zuen hizkuntzan ere bai, beraz. 2) Eta bigarren, edizio elebidun kritiko horren ondoan, Humboldt-en *euskal biografía eta euskal obraren azterketa* eskatuko luke batek, metodoz eta ofizio onez egina, gainerako obra humboldtar osoaren argitan burutua.

Gutaz mundu zabalean hain bihotzez mintzatu zen jakitun handiak merezi du hori eta gehiago gure herrian.

XIX. MENDEKO EUSKAL BIBLIOGRAFIETAKO ALBISTEAK

ALLENDE-SALAZAR, A. (1887): *Biblioteca del Bascófilo. Ensayo de un Catálogo General Sistemático y Crítico de las obras referentes á las Provincias de Vizcaya, Guipúzcoa, Alava y Navarra*. Madrid: Imprenta y Fundación de Manuel Tello. [Aipatzen dituen lanak:

– 115. zenbakian: «Averiguaciones acerca de los primitivos habitantes de España con ayuda de la lengua bascongada, por Guillermo Humboldt».

[s.d., s.l.; “Prüfung” deitua, alegia.]

– 127. zenbakian: «Berichtigungen und Zusätze zum ersten Abschnitte des zweyten Bandes des Mithridates über die Cantabrische oder Baskische Sprache, von W. von Humboldt. Berlin: In der Vossischen Buchhandlung». 1817».

[*Es poco común*, dio bibliografoak. Edukiaren laburpena ohar batean ematen du, eta albiste bibliografikoaren iturriak: *Revue de Linguistique* aldizkaria (1868ko apirilekoa), Vinson-en lan bat eta F. Rivary-ren *Essai sur la langue basque*, Vinson berak itzulita].

– 333. zenbakian: «Correcciones y adiciones sobre la lengua cántabra ó bascongada, por Guillermo Humboldt».

[Ondoren titulu orijinala ematen du, alemanez: “Berichtigungen...”, etab.]

– 698. zenbakian: «Ensayo de averiguaciones acerca de los primitivos habitantes de España con ayuda de la lengua bascongada, por Guillermo Humboldt».

[Ondoren titulu orijinala ematen du, alemanez: “Prüfung...”, etab.]

– 736. zenbakian: «Essai de recherches sur les premiers habitants de l’Espagne par le moyen de la langue basque. Guillaume Humboldt. A. Marrast. 1866».

[Ohar batean gogoratzen da: “Prüfung” dela, 1821ean argitara emana, Becerro de Bengoak gogoz txalotutako itzulpena; euskal Bibli itzulpenen albiste bat ere duela dator. Albiste bibliografiko honen iturriak: Soralue eta Rodríguez-Ferrer dira].

– 1453. zenbakian: «Mithridates, oder allgemeine Sprache-Kunde. (Mithridates ó ciencia general de las lenguas, con la oración dominical en cerca de quinientas lenguas ó dialectos). Por J. Ch. Adelung, publicado y continuado por J.-J. Vater. Berlín, 1806-1817».

[Euskarari buruzkoa, II, 9-30; Humboldt-en lana (1917), IV, 275-370: "Über die Cantabrische oder Baskische Sprache"; "Berichtigungen" gogorarazten da. Albiste bibliografiko honen iturriak: Brunet, Ticknor, Rodríguez-Ferrer, Rivary].

